

Tik Tak

Bezeroen Segmentazioa

Proiektu hau edozein plan egiteko konpainiarik aurkitu ez dabenentzat edo bakarrik sentitzen direnentzat pentsatuta dago. Horretaz gain, teknologian ondo moldatzen diren bezeroentzat zuzenduta dago be. Bi irizpide honek kontuan hartuta, batez be, teknologian aktibo ibiltzen diran gazteentzat, hain zuzen be, 18-35 urteen tartean dagozan pertsonentzat proposatuta dago. Eremu geografikoari jagokonez, Euskadin bizi diran gazte taldeentzako proposatuta egongo da. Bezeroen behar nagusiak haien zaletasunak praktikatzeko konpainia bilatzea da, hala nola, kontzertura joan, antzerkira joan, afaltzera joan edo egun gehiagoko planak be izan daitezke ,esaterako, eskiatzera joan, Europatik bidaiatu... Horretaz gain, asko edonoiz konpainiarik gabe topatu gara eta behar hori asetzea ezinbestekoa da. Beraz, edozein plan egiteko bikotekidea edo taldea bilatzen lagunduko dogu. Ine-ko estadistikaren arabera, Euskadin 300000 gazte bizi dira 18-35 adinen tartean eta lehenengo urtean 10000 gazte aurreikusten doguz gure bezero lez.